



# COVID-19ak ERAGINDAKO OSASUN- LARRIALDIA AMAITU ONDOREN MASKARA ERABILTZEARI BURUZ GOMENDIOAK.

Alerten eta Prestakuntza eta Erantzun-Planen  
Ponentziak egindako dokumentua

2023ko uztailarean 5a

ZAINITZA EPIDEMIOLOGIKOAREN PROTOKOLOAK

## 1. Sarrera

2023ko maiatzaren 5ean, Osasunaren Mundu Erakundeak COVID-19 nazioartean garrantzitsua den Osasun Publikoko Larrialdi gisa aintzatesteari utzi zion. Hala ere, SARS-CoV-2ak zirkulatzen jarraitzen du, eta beste arnas birus batzuek bezala, eragina izan dezake herritarren osasunaren gainean.

Maskararen erabilera funtsezko tresna da gaixotasun infekziosoen arnas bidezko transmisioa kontrolatzeko; izan ere, gaixo dagoen pertsonak, maskara erabiltzen badu, murriztu egiten du arnastean, hitz egitean, oihu egitean, eztul egitean edo doministiku egitean sortzen dituen aerosolen emisioa eta, horrez gain, oztopo fisiko bat da hartzailearentzat.

Egungo testuinguru epidemiologikoan, COVID-19a arnas infekzio akutuen zaintzan eta kontrolean integratzen duen esparru estrategiko berri bat onetsi da (ESTEKA), eta, haren arabera, orain arte maskaren erabileraren inguruan izan ditugun jarraibideak berrikusi dira. Gaur egun indarrean dauden gomendioak jarraian zehazten direnak dira.

## 2. Osasun-laguntzarako zentroetarako gomendioak (ospitaleak eta lehen mailako arreta)

**Laguntza-zentroetan** maskararen derrigorrezko erabilera unibertsala pandemiak iraun duen artean eta orain arte mantendu da, infekzioarekin lotutako konplikazioak izateko arrisku handia duten pertsonen ehuneko handiagoa delako, bertara joaten direnen edo ospitaleratuta daudenen artean, eta, bide batez, baliagarria izan delako osasun arloko langileen osasuna babesteko.

Osasun-zentroetan infekzio horiek kontrolatzeko, beharrezkoa da pandemia baino lehen eraginkorrak izan diren neurri estandarrak eta arnas birusen transmisioan oinarritutakoak (tantak/airekoa) betetzea. Halaber, garrantzitsua da pertsona zaurgarrienak arnas bidezko transmisioaren infekzioen aurrean babestea, horien iturria ez baita beti agerikoa, adibidez, kasu asintomatikoetan edo arnas klinikarik gabeko infekzioen transmisioan.

Gaixotasun horiek prebenitzeko gomendioak ezartzerakoan, funtsezkoa da, halaber, ingurune zaurgarrietan gomendio horiek indartzeko aukera aintzat hartzea arnas birus gehien dagoen denboraldietan.

Horregatik guztiagatik, eta transmisioan oinarritutako neurri estandarrak eta berariazko neurriak kontuan hartuta, maskarek dagokienez, honako hau gomendatzen da:

- Sintomak dituzten pertsonak (arnas infekzioaren kasu susmagarriak edo baieztatuak) maskara erabiltzea espazio partekatuetan daudenean.
- Kasu sintomatikoak artatzen dituzten osasun-zentroetako profesionalek maskara erabiltzea.
- Zainketa intentsiboen unitateetan eta paziente zaurgarriak dituzten unitateetan lan egiten duten pertsonak maskara erabiltzea, Medikuntza Prebentiboko Zerbitzuek eta Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuek, osasun-zentro bakoitzeko arrisku-balorazioaren arabera, infekzioa kontrolatzeko egiten dituzten gomendioak betez.
- Maskararen erabilera unibertsala ospitaleko edo lehen mailako arretako larrialdietan, baita itxarongelan ere.

### 3. Pertsona zaurgarrien egoitza-zentroetarako gomendioak

**Adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitza-zentroetan** bizi dira pertsona zaurgarrienak. Berez, maskaren erabilera unibertsala ez da gomendagarria, adinekoen ongizatea zaindu nahi delako, bai maila fisikoan, bai emozionalean (entzumen-gaitasuna murrizten dute, aurpegi-adierazpena oztopatzen dute), baina beharrezkotzat jotzen da neurri gehigarriak hartzea egoiliarren babesteko eta agerraldiak saihesteko. Helburu horrekin, berariazko gomendioak dituzten gidak prestatu dira: [Pertsona zaurgarrien egoitza-zentroetan arnas infekzio akutuen agerraldiak prebenitzeko eta kontrolatzeko gida.](#)

### 4. Herritarrentzako gomendio orokorrak

Pandemiaren ondoren ateratako beste ikasbide bat da herritarrak arduratsuak direla eta funtsezko zeregina dutela arnas infekzioen transmisioa murrizteari dagokionez. Garrantzitsua da azken urteetan garatu dugun erantzukizunaren kultura horri eustea, eta herritarrak animatzen jarraitzea maskarak eta beste higie-neurri batzuk erabil ditzaten, hala nola arnas etiketa jarraitzea (eztut edo doministiku egitean, ahoa eta sudurra ukondoa tolestuz estaltzea, erabili eta botatzeko musuzapiak erabiltzea, eta erabili ondoren botatzea, begiak, sudurra eta ahoa ez ukitzea) edo eskuak garbitzea, arnas infekzioaren sintomak daudenean.

### 5. Ondorioak

Azkenik, prest egoten jarraitu behar dugu, pandemian ikasitako osasun publikoko neurriak berriz hartzeko. Horrela, **testuinguru epidemiologiko kaltegarri** bat izango bagenu, arnasbideetako infekzio baten transmisio komunitario handiarekin, maskaren erabilera indartzea kontuan hartu beharko litzateke, neurri eraginkorrenetako bat baita infekzioa prebenitzeko eta kontrolatzeko.